

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eraginpean hartutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
90/2011 eta 96/2011	R8/2014	2014/12/19	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZ. Pertsona juridikoaren zerga-egoitza. Administrazio eskudunaren amore ematea

Ebazpena: R 8/2014

Espedienteak: 90/2011 eta 96/2011

Vitoria-Gasteiz, 2014ko abenduaren 19a.

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituneko Arbitraje Batzordeak, Gabriel Casado Ollero batzordeburuak eta Isaac Merino Jara eta Francisco Javier Muguruza Arrese batzordekideek osaturikoak, honako erabaki hau hartu du:

ERABAKIA

1. ERAKUNDEAK Zerga Administrazioko Estatuko Agentziaren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren aurrean sustatua, 2009ko ekitaldiko Balio Erantsiaren gaineko Zerga itzultzeko eskumenari lotuta, 90/2011 espediente-zenbakiarekin izapidetua, eta Bizkaiko Foru Aldundiak Zerga Administrazioko Estatuko Agentziaren aurrean planteatutako gatazkari lotuta, uste duelako azken horri dagokiola aipatu erakundearen 2009ko ekitaldiko BEZ ordainarazi, kudeatu eta ikuskatzeko eskumena, 96/2011 espediente-zenbakiarekin izapidetua, eta xede bera zutenez metatu egin ziren, 30/1992 Legearen 73. artikulua aplikatuz, Arbitraje Batzorde honen 2014ko irailaren 22ko bilkuran, txostengile gisa Gabriel Casado Ollero jaunak jardunez.

I. AURREKARIAK

1.- 90/2011 gatazka ulertzen da 1. ERAKUNDEAK (IFZ: ---1) (aurrerantzean "erakundea") automatikoki planteatu duela Arbitraje Batzorde honetan 2011ko maiatzaren 6an aurkeztutako komunikazioaren bitartez, bere Erregelamenduaren 13.3 artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eraginpean hartutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
90/2011 eta 96/2011	R8/2014	2014/12/19	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZ. Pertsona juridikoaren zerga-egoitza. Administrazio eskudunaren amore ematea

2.- 96/2011 gatazka Bizkaiko Foru Aldundiak (BFA) planteatu zuen Zerga Administrazioko Estatuko Agentziaren (ZAEA) aurrean, 2011ko abuztuaren 31n sarrera-erregistroa izan zuen idazki baten bitartez, Arbitraje Batzorde honek erakunde horren 2009ko ekitaldiko BEZaren kudeaketa eta ikuskapenerako eskumenari buruzko adierazpena egin dezan.

3.- Bi gatazkak izapidetzeko onartu ziren 2014ko irailaren 22an, eta egun berean metatu egin ziren 30/1992 legearen 73. artikulua aplikatuz; administrazio interesdunei alegazioak aurkezteko eskatu zitzaien, eta BFAk 2014ko urriaren 15ean eta ZAEAk azaroaren 4an aurkeztu zituzten.

4.- Espedienteetatik metatutako gatazkak konpontzeko azpimarragarriak diren honako egitate hauek ondorioztatzen dira:

a) 1. ERAKUNDEA (IFZ: ---1), sozietate- eta zerga-egoitza Erresuma Batuan dituen merkataritza-sozietate bat da, eta BEZaren araudiaren eraginetarako zergaren aplikazioko lurraldean egoiliarra ez den eta ezarpen iraunkorra ez duen sozietatetzat hartzen da. Espedientean adierazten denez, erakundeak 1. ENPRESA, SL (IFZ: ---2) borondatezko legezko ordezkari izendatu zuen Espainian, zeinak sozietate- eta zerga-egoitza Bizkaian zuen.

b) Erakundeak 2010eko otsailaren 1ean Bizkaiko Foru Aldundiaren aurrean 2009ko ekitaldiari zegokion BEZaren 390 ereduaren urteko laburpen-aitorpena aurkeztu zuen, euro 1eko itzuli beharreko zenbatekoa 1. ZENBATEKOA euro izanik. 2010eko abuztuaren 3an Ikuskaritzako Zuzendariordetzak txotena jaulki zuen egiaztapen mugatuko prozedura baten eremuan, eta bertan ondorioztatzen du Foru Ogasuna ez dela eskuduna zerga hori ordainarazteko, erakundeari horren berri emanez 2010eko abuztuaren 12an.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eraginpean hartutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
90/2011 eta 96/2011	R8/2014	2014/12/19	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZ. Pertsona juridikoaren zerga-egoitza. Administrazio eskudunaren amore ematea

c) 2010eko urriaren 5ean erakundeak ZAEAREN aurrean BEZAREN urteko laburpen-aitorpena aurkeztu zuen, 390 eredu, 2009ko ekitaldiari zegokiona, 1. ZENBATEKOA euro itzultzeko eskatuz, eta ez da jaso ZAEAK itzulketa-eskaera horri lotuta inolako jardunik egin duenik, eta 2014ko azaroaren 4ko alegazio-idazkian aipatzen du "ZAEAREN datu-baseetan agertzen denez itzulketa hori ordaintzeko zain agertzen da".

d) 2011ko maiatzaren 6an erakundeak idazki bat aurkeztu zuen Arbitraje Batzorde honetan, bere Erregelamenduaren 13.3 artikuluan ezarritakoaren arabera, jakinaraziz BFAREN eta ZAEAREN aurrean planteatutako 2009ko ekitaldiko BEZA itzultzeko eskaera bi administrazioek ukatu egin zutela "eskumengabetzat jotzen zirelako"; eta Arbitraje Batzorde honi eskatuz bere zerga-egoitza Espainian ezartzeko, egoiliarra ez den eta ezarpen iraunkorrik ez duen erakunde gisa nahitaez aurkeztu behar dituen aitortpenak aurkeztu ahal izateko, eta era berean 2009ko ekitaldiari dagokion BEZA itzultzeko eskumena duen administrazioa ezartzeko, "bi administrazioetan aurkeztu eta bietan ukatu egin delako".

e) 2011ko uztailaren 1ean BFAK ZAEARI eskumengabetasun-aitortpenaren idazkia jakinarazi zion, azken hori erakundearen 2009ko ekitaldiko BEZA kudeatu eta ikuskatzeko eskumenduntzat jotzen duelako.

ZAEAK ez zuen kontuan hartu BFAK egindako eskumengabetasun-aitortpena, bere eskumenik eza tazituki adieraziz.

f) 2011ko irailaren 1ean BFAK ZAEARI jakinarazi zion 2011ko abuztuaren 30ean Arbitraje Batzordean gatazka planteatu zuela (sarrera-erregistroa: abuztuaren 31), "1. ERAKUNDEAREN 2009ko ekitaldiko BEZAREN

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eraginpean hartutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
90/2011 eta 96/2011	R8/2014	2014/12/19	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZ. Pertsona juridikoaren zerga-egoitza. Administrazio eskudunaren amore ematea

kudeaketa eta ikuskaritzarako eskumenari buruzko" adierazpena egin zezan.

g) 2011ko irailaren 5eko idazki baten bitartez, erakundeari irailaren 13an jakinarazi zitzaiona, ZAEAk EAEn duen Ordezkarri Bereziak 1. ERAKUNDEARI jakinarazi zion BFAk gatazka planteatu zuela.

5.- Gatazka planteatzeko idazkiari gaineratzen zaizkion txostenetan, 2014ko urriaren 15eko azken alegazioenak osorik baliatzen dituenetan, Bizkaiko Foru Aldundiak, laburbilduta, honako hau argudiatzen du:

- 1. ERAKUNDEA egoiliarra ez den eta bere jarduera guztiak Erresuma Batutik egiten dituen erakundea da eta BEZa aplikatzeko lurraldean ezarpen iraunkorra ez duen erakunde gisa dihardu, bertan ez duelako egoitza, ezta zerga-egoitza ere ez, eta zergari lotuta dauden ondasun-entregak eta zerbitzugintzak egiteko leku iraunkor baten bitartez ez du lan egiten (BEZari buruzko azaroaren 9ko 7/1994 Foru Arauaren 84. artikulua).

- Espainiako lurraldean bizi diren administrazioetako edozeinetako zerga-agintarien aurrean dokumentuak aurkezteko borondatezko mandatugile edo ordezkarri bat izendatzeak ez dakar enpresa lurralde horretan ezartzea.

- Ekonomia Itunaren 27. artikulua zerga aplikatzeko lurraldean ezarritako subjektu pasiboari lotuta BEZa ordainarazteko irizpideak arautzen ditu; eta 29. artikuluan ezartzen ditu zergaren kudeaketa eta ikuskaritzarako administrazio eskuduna ezartzeko konexio-puntu gisa, alde batetik, zerga-egoitza, eta bestetik, eragiketarako egiten diren lekua horiek esanguratsuak direnean.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eraginpean hartutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
90/2011 eta 96/2011	R8/2014	2014/12/19	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZ. Pertsona juridikoaren zerga-egoitza. Administrazio eskudunaren amore ematea

- Ekonomia Itunaren 43. artikulua zerga-egoitza erregulatzen du, baina bere arauetako bakar bat ere ez da aplikagarria egoiliarrek ez diren eta ezarpen iraunkorra ez duten erakundeentzat; eta Itunaren artikulua bakar batean ere ez da adierazten erakunde horien zerga-egoitza Zerga Administrazioarekiko harremanetarako duten ordezkariarena, are gehiago borondatezko ordezkari bat izanik. Hori erabat logikoa da, gaineratzen da, izan ere, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arau Orokorraren 46. artikuluan aurreikusita dagoen zerga-ordezkaria izendatzeko betebeharra Bizkaiko zerga-administrazioarekin aldeztetik harremanen bat izatearen ondorio baita, eta ez ordea harreman horren arrazoia.

- Bestalde, egoera hori Ekonomia Itunean aurreikusita egongo balitz, zergaren ordainarazpena ezartzeko arauak finkatuko liriteke ezarrita ez dagoen operadoreak aurreko urte naturalean egindako eragiketa-bolumena zazpi milioi eurotik gorakoa ez zenean.

Hori guztia kontuan izanik, BFAk ondorioztatzen du Ekonomia Itunean ez direla banatzen eskumenak EAEren eta Estatuko Ogasunaren artean zerga aplikatzeko lurraldean ezarrita ez dauden subjektu pasiboen BEZari dagokionez, eta beraz, ezarrita ez dauden operadoreen BEZa ordainarazi eta ikuskatzeko eskumena espezifikoki itundu ez denez gero, hori estatuari egokituko litzaioke, hark izango zukeelako 1. ERAKUNDEAK 2009ko ekitaldian aitortutako BEZa ordainarazi eta ikuskatzeko eskumena; horrexegatik Bizkaiko Foru Aldundia erakundeak eskatu duen 2009ko ekitaldiko BEZa itzultzeko eskumengabea da.

Modu osagarrian, BFAk aitortu du Arbitraje Batzordearen Erregelamenduan zuzenbidearen arabera eskumen-gatazka planteatzeko

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eraginpean hartutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
90/2011 eta 96/2011	R8/2014	2014/12/19	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZ. Pertsona juridikoaren zerga-egoitza. Administrazio eskudunaren amore ematea

aurreikusita dauden izapide eta epe guztiak bete dituela, eta beraz kasu honetan aipatu Erregelamenduaren 13.3 artikulua zergapekoei beren kabuz Arbitraje Batzordera jotzeko eta gatazka bat planteatzeko aitortzen dien eskubidearen oinarri den dagozkion administrazioen jardunik eza ez dela gertatzen.

6.- 2014ko azaroaren 4ko alegazio-idazkian, ZAEAk Ekonomia Itunaren BEZa ordainarazi, kudeatu eta ikuskatzeari buruzko 27. eta 29. artikulua, EAEn pertsona fisiko eta juridikoak zergari dagokionez helbideratuta daudela noiz ulertu behar den ezartzen duen 43. artikulua, eta, azkenik, BEZari buruzko abenduaren 28ko 37/1992 Legearen 84.Bi artikulua aipatu ondoren, uste du aurreko artikuluetan ez dagoela konexio-punturik 1. ERAKUNDEAREN BEZA ordainarazi, kudeatu eta ikuskatzeko, ezarrita ez dagoen eta aurreko ekitaldian 7 milioi eurotik beherako eragiketa-bolumena duen subjektu pasiboa delako eta bere zerga-egoitza ezin delako ezarri, eta beraz ondorioztatu behar da eskumen horiek Estatuari dagozkiola. Horregatik "ZAEA eskumendun aitortzen da gatazka metatu hauen xede den zergapekoaren 2009ko ekitaldiko BEZa ordainarazteko"; eta gaineratzen du "eskumen-irizpide bera aplikagarria izango dela gainerako ekitaldietan, ekitaldi horietan eragiketa-bolumenari eta egoitza-ezarpenik gabeziari lotutako baldintza berdinak daudenean".

Alegazioak amaitzen ditu Arbitraje Batzorde honi eskatuz "ZAEAREN amore-ematea onartzea erabaki dezala, 1. ERAKUNDEAREN (IFZ: ---1) BEZa ordainarazteko eta zerga horren kudeaketa eta ikuskapena egiteko eskumena onartu duelako".

II. ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1.- Gatazka metatu hauen xedea 1. ERAKUNDEAK aitortu duen 2009ko ekitaldiko BEZAREN ordainarazpena, kudeaketa eta ikuskapena egiteko

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eraginpean hartutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
90/2011 eta 96/2011	R8/2014	2014/12/19	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZ. Pertsona juridikoaren zerga-egoitza. Administrazio eskudunaren amore ematea

eskumena duen administrazioa finkatzea da; aldez aurretik gatazka horietako lehenengoa, hau da, erakundeak izapidetutako 90/2011 gatazka onargarritasunerako izan daitekeen oztopoa kendu beharko da, hau da, BFAk kasu honetan dagozkion administrazioen egintzarik eza dagoela adierazitakoari buruzkoa, zergapekoei beren kabuz Arbitraje Batzordera jotzeko eta gatazka bat planteatzeko aitortzen dien eskubidearen oinarri dena, "kontuan izanik Bizkaiko Foru Ogasun honek zuzenbidearen arabera eskumen-gatazka izapidetzeko aurreikusitako izapide guztiak bete zituela, eta Arbitraje Batzordeak -gaineratzen da- bidezko diren ondorio juridikoak atera beharko lituzke horretatik".

2.- Aurrekariak aztertuta ondorioztatzen da 2010eko abuztuaren 12an BFAk erakundeari jakinarazi ziola BEZa ordainarazteko eta, beraz, sozietateak eskatutako 2009ko ekitaldiko BEZa itzultzeko eskumenik ez zuela; baina hamaika hilabete igaro arte ez zion jakinarazi BFAk ZAEARI eskumengabetasun-aitorpenaren idazkia.

BFAk 2010eko abuztuaren 12an jakinarazitako ukoaren ondoren, erakundeak 2010eko urriaren 5ean ZAEAREN aurrean 2009ko ekitaldiari zegokion BEZAREN urteko laburpen-aitorpena, 390 eredu, aurkeztu zuen, 1. ZENBATEKOA euro itzultzeko eskatuz, eta ZAEAK ez zion inolako jardun edo jakinarazpenik egin zergapekoari aipatu itzulketa-eskaerari lotuta, hamaika hilabete geroago, 2011ko irailaren 13an, BFAk Arbitraje Batzordearen aurrean gatazka planteatu zuela jakinarazteko egindakoa salbu.

Horregatik, hitz lauz hartuta ez da guztiz zuzena erakundeak 2011ko maiatzaren 6ko idazkian adierazi zuena, hau da, 2009ko ekitaldiko BEZa itzultzeko eskaera "bi administrazioetan aurkeztu zela eta biek uko egin ziotela (...) eskumengabeak zirelako"; izan ere, adierazi den bezala, ez da inon

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eraginpean hartutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
90/2011 eta 96/2011	R8/2014	2014/12/19	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZ. Pertsona juridikoaren zerga-egoitza. Administrazio eskudunaren amore ematea

agertzen ZAEAk itzulketa-eskaera hori esanbidez ukatu zuenik eta zergapekoari horri buruz inolako komunikaziorik bidali zionik.

Kontuan izanik, alde batetik, BFAk erakundeari bere itzulketa-eskaera kontuan izateko eskumenik ez zuela jakinarazi zionetik (2010eko abuztuaren 12a) ZAEARI eskumengabetasun-aitorpena jakinarazi zion arte (2011ko uztailaren 1a) igaro ziren hamaika hilabeteak; eta bestetik, kontuan izanik erakundeak 2010eko urriaren 5ean egindako itzulketa-eskaerari Estatuko administrazioak ez ziola erantzun eta ez zuela jardunik egin, Arbitraje Batzordearen Erregelamenduaren 13. artikuluan (lasaiegia atal batzuetan eta zorrotzegia beste batzuetan) aurreikusitako prozeduraren ulermen desberdinarengatik, asimetrikoa delako, eta gainera *pro actione* printzipioaren eskakizun antiformalistekiko sentsibilitaterik ez duelako (Arbitraje Batzorde honen abenduaren 22ko 2/2008 ebazpena), eragotzi egin beharko litzateke 2011ko maiatzaren 6an zergapekoak 2009ko ekitaldiko BEZa 1. ZENBATEKOA euroko zenbatekoarekin itzultzeko eskaerari bi administrazioek jaramonik egin ez izanaren ondorioz sustatu beharrekotzat jo zuen gatazka "automatikoki planteatutzat uler dadila" (Arbitraje Batzordearen Erregelamenduaren 13.3 artikulua).

3.- Beraz, metatutako gatazkak ez onartzeko kausarik ikusten ez denez, ez dago inolako legezko zirkunstantzia edo oztoporik ZAEAk bi gatazken aurrean egin duen amore-ematea ez onartzeko, erakundearen BEZa ordainarazteko eta zerga horren kudeaketa eta ikuskapenerako eskumena onartu duelako.

Arbitraje Batzordearen Erregelamenduaren 8. artikulua bere funtzionamendu-erregimenari buruzko guztia arautzeko baliatzen duen 30/1992 legean amore-ematearen figura aurreikusita ez dagoen arren, atzera egitea ordea aurreikusita dago prozedura amaitzeko modu gisa (30/1992 Legearen 91.2 artikulua), eta Batzorde honek gainera jadanik aplikatu du hainbat prozeduratan, non gatazka

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eraginpean hartutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
90/2011 eta 96/2011	R8/2014	2014/12/19	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZ. Pertsona juridikoaren zerga-egoitza. Administrazio eskudunaren amore ematea

planteatu zen administrazioak administrazio sustatzailearen pretentsioan esanbidez amore eman zuen (3/2010 ebazpena, abenduaren 20koa, 34/2008 espedientea; eta 16/2011 ebazpena, maiatzaren 26koa, 25/2010 espedientea) eta arrazoi bera dela medio prozedura honetan ere aplikatu behar dugu.

Horri jarraiki, Arbitraje Batzordeak

ERABAKI DU

1.- 1. ERAKUNDEAK Bizkaiko Foru Aldundiaren aurrean eta ZAEAREN aurrean (90/2011 gatazka) eta Bizkaiko Foru Aldundiak ZAEAREN aurrean (96/2011 gatazka) planteatutako gatazketan ZAEAREN amore-ematea onartzea, erakundearen 2009ko ekitaldiko BEZAREN ordainarazpenerako eskumena onartuz, eta era berean eskumendun deklaratzuz eragiketa-bolumenari eta egoitzari ezarpen ezari lotutako baldintza berberak ematen diren gainerako ekitaldietarako.

2.- Erabaki hau erakundeari, Bizkaiko Foru Aldundiari eta ZAEARI jakinaraztea.